

SARRERA	IRTEERA
Zk. 2	Zk. 1699

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 10ekoa, HABEren zuzendari nagusiarena, euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek aurkeztutako Curriculum-proiektuak onartzen dituen.

2015eko uztailaren 22ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curricula (HEOC) ezartzen duen Aginduaren 7. artikulua xedatzen du, Euskaltegiaren Curriculum Proiektuaz ari denean (ECP), HEOCaren ezarpenerako euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak bere curriculum-proiektua aurkeztu behar diola HABEren zuzendari nagusiari curriculum-jarduerarekiko printzipioak eta irizpideak ezarriz, balio-aukerak azalduz eta xedeak zehaztuz.

Euskaltegiari eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzari aitortzen zaion autonomia pedagogiko eta antolatzailearen baitan, bere izari-ezaugarrien arabera curriculum-proiektua osatzeko agindua eman zitzaion, une oro bertako jardunbideen norabidea eta koherentzia bermatzeko, izan ikasgeletan, izan euskaltegian bertan.

Agindu horren xedapen iragankorretatik bigarrenak dioenari jarraikiz, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek bi urteko epea izan dute Agindua indarrean jarri zen egunetik ordura arte indarrean zuten curriculum-proiektua Agindu honetan xedatzen denera ekartzeko, eta Azken Xedapenetatik Laugarrenaren arabera, epe hori 2017ko urriaren 2an amaitu zen.

HABE jasotako 99 dokumentuen irakurketa-prozesua burututa, aurkeztutako curriculum-proiektuen balorazioa jaso zuten euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek 2018ko otsailan. ECParen izaera dinamikoa onartuta, lan-proposamenean antzemandako ahuleziak sendotzeko eta HEOCak ebatzitakora doitzeko, egoki ikusi zen *Euskaltegiaren Plana* eta *Euskaltegiaren Memoria* dokumentu operatiboak egokiera-prozesu hori burutzeko baliabidetzat jotzea, eta indarrak Curriculum-Aginduaren bere 7.2 artikulua azken puntuan jartzea, *Ikasleak, irakasleak eta euskaltegia bera ebaluatzeko arribideak* atalean, euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroyen ebaluazio-sistema nola dagoen egituratuta egokiago zehaztu eta birformula zezaten: ebaluazio-alorrak eta ebaluazio-mota bakoitzeko, metodoak, adierazleak, irizpideak, prozedurak, erremintak, garaiak eta audientziak.

Egokiera-prozesu hori burutzeko bi hilabeteko epea aurreikusi bazen ere, euskaltegietatik jasotako luzapen-eskaerak kontuan hartuta, HABEren zuzendariaren 2018ko apirilaren 30eko Ebazpenak aurkezpen-epea luzatzeko aukera aitortu zien euskaltegiei eta euskararen autoikaskuntzarako zentroyei 2018ko irailaren 30era arte.

Behin euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroyek burututako HEOCaren arabera egokierak eta birformulazioak HABE jasota, aurkeztutako curriculum proiektuei buruzko balorazioa egin da, eta sendotu eta hobetu beharreko zenbait eremuri begirako irizpen arrazoituak eskaini dira, curriculum proiektuak euskaltegiek eta irakasleek bideratzen dituzten ikas/irakas-jardueren koherentzia bermatuko duen tresna izan daitezen.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duen Aginduaren 7.3 artikulua xedatzen duenari jarraikiz, euskaltegiek eta autoikaskuntza zentroek curriculum proiektu eguneratua aurkeztu beharko dute bost urteko epean. Epe horri dagokionez, bestalde, bidezkoa da jatorrizkoa burutu den epetik aurrera kontatzen hastea, gauzatuko den eguneratzea eragingarria izan dadin, epe horretan bildu diren ondorioen arabera, eta, ondorioz, 2018ko urriaren 1etik aurrera kontatzen hastea, eta, Herri Administrazioen prozedura erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikulua xedatzen duenari jarraikiz, curriculum-proiektu eguneratua aurkezteko epea 2023ko irailaren 30a arte luzatzea.

Horrenbestez, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek aurkeztutako curriculum-proiektuak aztertu, eta HABEren Hizkuntzaren Didaktika-zerbitzuko Curriculum Garapenaren atalean egindako txostena ikusi ondoren, 2015eko uztailaren 22ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum ezartzen duen Aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Ondoren datozenen Curriculum Proiektuak Euskaltegien eta Autoikaskuntzarako Zentro Homologatuen Erregistrora biltzeko agindua ematea:

Aita Villasante U.E.	Bidasoako AEK	Hego uribeko AEK
Aitzol U.E.	Bilbo Zaharra	Hegoalde
Aixkiria	Busturiako AEK	Hernani AEK
Altza	Debabe U.E.	Hernaniko U.E.
Amara Berriko AEK	Debagoienako AEK	Herri Jakintza
Amurrioko AEK	Deustuko Unibertsitate	Hitzez
Andoaingo AEK	Durangaldeko AEK	Hondarribiko U.E.
Antiguako AEK	Durangoko U.E.	Ika -Gasteiz
Arana AEK	Eibarko U.E.	Ilazki
Arrasateko U.E.	Eibarraldeko AEK	Indautxuko AEK
Arrigorriagako U.E.	Enkarterriko AEK	Irrintzi AEK
Azpeitiko U.E.	Enkarterriko U.E.	Irungo U.E.
Bai&By Bilbo	Erandioko U.E.	Jose Antonio Agirre
Bai&By Donostia	Ermuko AEK	Juan Mateo Zabala
Bai&By Gasteiz	Ermuko U.E.	Labayru Fundazioa
Barakaldoko AEK	Errenteriako U.E.	Lasarte Oria U.E.
Barakaldoko U.E.	Gabriel Aresti	Lasarte-Oria AEK
Basauriko U.E.	Galdakaoko U.E.	Laudioko AEK
Beasaingo U.E.	Getxoko U.E.	Laudioko U.E.
Bedita U.E.	Goierriko AEK	Lautadako AEK
Bergarako U.E.	Gotzon Garitaonaindia	Lea Artibaiko AEK

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Legazpi 6	Mungiako U.E.	Udaberria
Legazpiko U.E.	Muskizko U.E.	Ulibarri
Leintz U.E.	Oarsoaldeko AEK	Uribe Kostako AEK
Leizaur	Oiongo Ika	Urola-Kosta AEK
Lizardi-AEK	Pasaiako U.E.	Urrats
Maizpide Barnetegia	Portugalete U.E.	Urumea
Mastitxu Leioa	Santurtziko U.E.	Uzue U.E.
Matxintxu-AEK	Santutxuko AEK	Xaribari AEK
Meatzaldeko AEK	Sestaoko AEK	Zadorra AEK
Mikelats	Sestaoko U.E.	Zarauzko U.E.
Mondragon- Lingua Bilbo	Sopelako U.E.	Zornotza U.E.
Mondragon -Lingua Donostia	Trapagarango U.E.	Zornotzako Barnetegia
Mondragon - Lingua Gasteiz	Txorierriko U.E.	

Bigarrenkoa. Ebazpen hau euskaltegiei jakinaraztea, eta hala badagokio, Ebazpenaz gain Curriculum Proiektua garatzeko, inplementatzeko eta hobetzeko egokitzat jotzen diren iradokizunak, irizpen arrazoituak edota orientabideak ere ematea.

Hirugarrena. Euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek curriculum-proiektua eguneratzeko epea 2018ko urriaren 1etik aurrera kontatzen hastea, eta, ondorioz, curriculum-proiektu eguneratua aurkezteko epea 2023ko irailaren 30a arte luzatzea.

Laugarrena. Interesdunei jakinaraztea administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka egiteko, gora jotzeko errekurtoa jar daitekeela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epearen barruan.

Donostian, 2018ko abenduaren 10ean.

Jokin Azkue Arrastoa

HABEren zuzendari nagusia

HABE
Helduen
Alfabetatze eta
Berreuskalduntzerako
Erakundea